



**EBAZPENA, LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIAREN 2024KO EKAINAREN 25EKOA. EBAZPEN HONEN BIDEZ ARGITARA EMATEN DIRA FISIOTERAPEUTA, TERAPEUTA OKUPAZIONAL, HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO ESPEZIALISTA, TRANSKRIBATZAILE EDO MATERIALAREN EGOKITZAILE ETA ZEINU-HIZKUNTZAKO INTERPRETE KATEGORIETAKO ORDEZKOGAIEK TELEMATIKOKI ESKATU DITUZTEN LURRALDE HISTORIKOEN, DESTINOAREN ETA LANALDI MOTEN AUKEREN ALDAKETAK, 2024-25KO IKASTURTERAKO ESLEITZEKO PROZEDURA TELEMATIKOARI DAGOKIONEZ.**

2024ko ekainaren 17ko ebazpenaren bidez, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, epea eta prozedura ezarri zen fisioterapeuta, terapeuta okupazional, hezkuntza-laguntzako espezialista, transkribatzaile edo materialaren egokitzaile eta zeinuhizkuntzako interprete kategorietako ordezkogaiak lurralde historikoen, destinoaren (bakarrik lanaldi partzialentzat) eta lanaldi motaren inguruan eginda zituzten aukerak aldatu ahal izateko, 2024-25 ikasturterako esleipen-prozedura telematikoei dagokienez.

Eskaerak aurkezteko epea amaituta, argitara eman behar dira behin-behineko izaerarekin eskaerak, dagokion epean eta forman aurkeztu duten pertsonen aukerak Lurralde Historiko, destino (bakarrik lanaldi partzialentzat) eta lanaldi motei dagokienez.

Horren arabera,

**EBAZTEN DUT:**

**Lehena.- Onartutako eskabideak. Egindako aukerak argitaratzea.**

Ebazpen honen bidez argitara ematen dira behin-behineko izaerarekin ordezkogaiak lurralde historikoen, destinoaren (bakarrik lanaldi partzialentzat) eta lanaldi-motaren inguruan egin dituzten aldaketak 2024-25 ikasturterako lanpostuak era telematikoan esleitzeko prozesurako, 2019ko ekainaren 4ko Aginduak ezarritakoari jarraiki, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez lanpostuaren adjudikazioa arautzen baitzaie fisioterapeuta, terapeuta okupazional, hezkuntza-laguntzako espezialista, transkribatzaile edo materialaren egokitzaile eta zeinuhizkuntzako interprete kategorietan ordezkapenak egiteko hautagai-zerrenden parte direnei, eta zeinaren bidez ezartzen baita lan-kontratudun langile finkoei, mugagabe ez-finkoei eta bitartekoei zentroen urteko esleipena egiteko prozedura, fisioterapeuta, terapeuta okupazional eta hezkuntza-laguntzako espezialista kategorietan.

Onartutako eskabideak I. Eranskinean jasotzen dira, kategoriaka.

**Bigarrena.- Ez onartutako eskabideak.**

Ez dira onartzen, objekturik ez dutelako, II. eranskinean zehazten diren pertsonen eskabideak, ez baita lurralde historikorik hautatu.

II. eranskin horretan zerrendatutako langileek, 2024ko ekainaren 27rako (ZHIko kategorian abuztuaren 21erako) prest lan-egoeran badaude, birbaremazio-prozesuan hautatutako aukerekin parte hartuko dute.



Lurralde historikoaren, destinoaren eta lanaldi motaren aukerak aldatzeko prozesu honen helburua ikasturte hasierako esleipenean parte hartzeko aukerak aldatzea da, baina ez lan-egoera aldatzea.

Lan-egoera aldatu nahi izanez gero, "prest" egoera ez den beste batean jartzeko, mezu elektronikoa bat bidali behar duzu lurralde historiko bakoitzeko helbide hauetara: [arabaei@euskadi.eus](mailto:arabaei@euskadi.eus), [eigipuzkoa@euskadi.eus](mailto:eigipuzkoa@euskadi.eus) eta [bizkaiaei@euskadi.eus](mailto:bizkaiaei@euskadi.eus).

Posta elektronikoa horretara idazki sinatua eta NANaren kopia aurkeztu beharko dira, bai eta eskatutako aldaketa egiaztatzen duen dokumentazioa ere.

### **Hirugarrena.- Ondorioak.**

I. Eranskinean jasotzen diren pertsonak 2024-25ko esleipen-prozedura telematikoan parte hartuko dute bertan jasotzen diren lurralde historiko, destino (bakarrik lanaldi partzialentzat) eta lanaldi motarekin.

Prozesu hori bukatu ondoren, fisioterapeuta, terapeuta okupazional, hezkuntza-laguntzako espezialista, transkribatzaile edo materialaren egokitzzaile eta zeinuhizkuntzako interprete kategorietan ordezkapenak egiteko ordezkogaien zerrenda birbarematzeko prozesuan adierazi zituzten aukerekin jarraituko dute 2024-25ko ikasturtean eskatzaileek.

Hala ere, kasu guztietan, bakarrik lanpostu bat esleituko zaio ordezkapenak egiteko hautagai-zerrenden parte diren horiek esleipen-prozesu telematikoan eskaerak egiten hasteko epea hasi baino hiru egun lehenago prest moduan badaude, lan-egoera hori eskaerak aurkezteko epea baino hiru egun lehenago aldatzeko aukera izango dute dagokion dokumentazioa aurkeztuz.

### **Laugarrena.- Erreklamazio epea.**

Ebazpen honen aurka 2024ko ekainaren 25etik 26ra (biak barne) aurkeztu ahal izango dira erreklamazioak dagokion moduan sinatuta [hezk.sind@euskadi.eus](mailto:hezk.sind@euskadi.eus) posta elektronikoa. Erreklamazioak aurkezteko, posta elektronikoa atxikitu behar dira: idazki sinatu bat eta NANaren kopia.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko ekainaren 25ean.

**LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**

**BLANCA GUERRERO OCEJO**